

# ITXIALDI EGOERA BATEAN NOLA JOKATU?

## (3. agertokia)

### KOORDINAZIOA

---

#### ☞ Mintegietako koordinazioa:

Mintegi bakoitzeko mintegiburuek mintegikideak deituko dituzte astero, bilera egiteko bideodei baten bitartez.

#### ☞ Gelako irakasle on arteko koordinazioa:

- a) **Gelako Irakasle-Taldea (GIT)**. Tutoreek, gutxienez hiru astean behin, bere gelan ematen duten irakasleak deituko ditu bilera batera (bideobilera). Maiztasun horretatik at, irakasleren batek, ezohiko bilera bat egitea komeni dela ikusten badu, tutoreari eskatuko dio bilera hori deitzeko. Esan beharrik ere ez dago, itxialdia ematen bada, itxialdiko lehenengo astean deituko duela geletako irakasle taldearen estreinako bilera.
- b) **INIK**. INIKako ikasleen jarraipenaren bitartez, ikasleen nondik norako informazioa ere izan dezakegu. Tresna hau ere beraz, horretarako erabiliko dugu, bileretatik aparte, osagarri moduan. INIKako jarraipen hori, aurreebaluazio eta ebaluazio saioak baino lehenago derrigorrez bete behar da, baina horretaz aparte, ikasleren baten inguruan zerbait esateko dugun bakoitzean idatziko dugu, gure gelako tutoreak eta beste irakasleek ere, horren berri idatziz izan dezaten.

### METODOLOGIA

---

Ikasturte hasieran ikasleekin aurrez aurre lan egiteko aukera baldin badugu, eta hori da aurreikusten duguna, lehenik eta behin gure lan metodologia zein izango den argituko diegu, lan eszenatokia edozein delarik ere.

Ez ahaztu, aurrez aurreko irakaskuntzan bezalaxe, lehen egunetan ikasleek ikasgai bakoitzeko programazio laburtua jaso behar dutela idatziz, non esaten den zer ikasiko duten ikasturte horretan, zein izango den erabiliko den metodologia, nola izango diren ebaluatuak (kalifikazio irizpideak oso garbi adierazi behar dira), eta abar. Programazio hori ikasle guztientzat berdina izan behar da ikasgai bakoitzeko.

3. agertokian bagaude, ikasleak etxean egongo dira, itxialdian.

lazko ikasturteko azken hilabeteak oso gogorrak izan ziren, eta halakoxeak aurreikusten ditugu hurrengoak ere.

Ikasgai bakoitzean ze metodologia erabiliko den, ikasgai bakoitzeko erabakiko da mintegietan, betiko moduan, baina gutxienerako ezinbesteko batzuk finkatuta geratzen dira:

- a) IRAKASLE GUZTIEK IKASLE GUZTIEKIN, **SARRERA-PLATAFORMA BERA ERABILIKO DUGU: MOODLE**. Plataforma horretan, ikasturte bakoitzeko eta gela bakoitzeko TUTORETZA IKASGAIA sortu dute informatikako mintegiko irakasleek. Beraz, DBH1A, DBH1B eta abar.

## DBH1

Hasiera / Ikastaroak / IKASGELA / Tutoretzak / DBH1

Ikastaro-kategoriak: IKASGELA / Tutoretzak / DBH1

Bilatu ikastaroak

Joan



DBH1A

Etxean dagoen ikaslea (3. agertokian), bere gelan sartzen denean, (adibidez **TUTORETZA / DBH1 / DBH1A**n), asteko planifikazioa topatuko du. Asteko planifikazioa tutoreek txertatuko dute.






Asteko planifikazioa. lazko moduan, ikasleen asteko egitekoa **google-eko kalkulo orria** erabiliz planifikatuko dugu (DRIVE). **laz ez bezala, aurten DBH eta Batxilergoko talde guztietan beteko da planifikazioa. Guztiekin berdin jokatu da.**

Fitxategi hori, astero bete beharko dugu.

Irakasleek, aste bakoitzeko asteburu edo jai **bezperako** goizeko 10:00ak arte izango dute planifikazioa betetzeko epea (gehienetan beraz, ostiral bakoitzeko goizeko 10:00ak arte), eta tutoreek 14:00ak baino lehenago zintzilikatu beharko dute beraien gelako planifikazio hori (.pdf formatura pasaz aurretik), erabiliko dugun sarrera-plataforman.

**Epe eta ordu horiek errespetatu egin behar dira. Ez gara iazko moduan irakasle bakoitzari bere egitekoa gogorarazteko telefonoz deitzen ibiliko.**

Ikasleak asteko planifikazioa irekiko du eta irakasgai bakoitzeko irakasleak agindutakoaren berri jasoko du.

DBH 1A						
ORDU KOPURUA ASTEAN	IRAKASGAIA	IRAKASLEAK	 LANA	PLATAFORMA METODOLOGIA Moodle, Classroom, bidoklasea, emaila, liburua.....	EPEA	
4	EUSKARA					
						
3	GAZTELANIA					
						

PLATAFORMA/METODOLOGIA jartzen duen atalean, irakasgaiko irakasleak, Classroomeko bere irakasgairako, Moodleko bere irakasgairako, edota sortutako bideoklaserako esteka (vínculo, hipervínculo...) txertatuko du. Era horretara, ikaslea planifikaziotik sartuko da plataformara. **Bidea bat eta bakarra izatea komeni da** ikasleak eta familiak erotu ez ditzagun: **planifikazioa**. Eta planifikaziotik klik egin eta joango dira agintzen diegun tokira (Classroom, bideoklasea,...).

Lehenengo egunetan, irakaslea bere ikasleekin Moodlelen sartuko da, eta baita ikasleekin erabiliko duen plataforman ere, horretan trebatu daitezen eta lagundu diezaiegun.

b) Ikasleekin astean zehar zuzeneko **BIDEOKLASE batzuk egin behar dira ezinbestez** ikasgai guztietan. Maiztasuna:

- Gure ikasgaia, asteko 4 ordukoa bada, horietatik 2 bideoklaseak izango dira.
- Gure ikasgaia, asteko 3 ordukoa bada, horietatik 1 edo 2 bideoklaseak izango dira.
- Gure ikasgaia, asteko 2 ordukoa bada, horietatik 1 bideoklasea izango da.
- Gure ikasgaia asteko ordu bakarrekoa bada, 15 egunean behin gutxienez, bideoklasea emango diegu.

Gutxienerako hauek bete egin behar dira. Iruditzen zaigu, asteko ordu guztietan ere, ezin diezaiegun bideoklase bidez klase eman; eguneko 6-7 bideoklase, ez zaigu osasungarria iruditzen. Gela bilera baten bitartez adostuko duzue zeinek emango duen zein egunetan bideoklasea, bideoklase guztiak ez daitezen egun berean pilatu. Ikasturte osorako ezarritako ordutegia errespetatu beharko da ezinbestez.

**IKASTETXEAN GAUDEN BITARTEAN, IKASLEEKIN GUTXIENEZ BIDEOKLASE BAT EGINGO DUGU BERTAKO ORDENAGAILUEKIN (horretarako, erreserba sistema erabiliz, informatika gela edota ordenagailu-karroak erreserbatu), ikasleak trebatzeko.**

BIDEOKLASE hauetan jarraitu beharreko protokoloa:

- Ikaslea identifikatu egin behar da, nahitaez, bai ala bai.
- Ikaslea klase osoan zehar egon behar da konektatua (bideoklaseak emateko erabiltzen diren aplikazioetan badaude ikasleen kontrola eramaten lagunduko diguten gehigarriak).
- Irudiaren kudeaketa. Irakasle bakoitzaren erabakia da.
- Jokabide desegokiak:
  - Klasean gaizki portatzen den ikaslea, bideoklasetik bota egingo dugu. Noski, jarrera txar hori, notan islatu behar da, eta notan islatzeko programazioan jaso egin behar da.
  - Konektatzen ez bada? Bi aukera: hutsegitea da noski, eta hutsegite hori justifikatua edota justifikatu gabekoa izan daiteke.

Justifikatua dela gurasoek ziurtatu beharko dute, hala den kasuetan, INIKA bitartez, tutoreari mezu bat bidaliz. Irakasgaiko irakasleak beraz, bere ikasgaira huts egin duen ikasleari hori jakinarazi behar dio, hau da, huts egiten duenean, gurasoek tutorearekin harremanetan jarri behar direla.

Justifikatu gabeko hutsegite bat bada berriz, ikasleak jarraian ebaluatua izateko eskubidea gal dezake, ikastetxeko ohiko araudiari jarraituz.

Irakasleek eta tutoreek, ikasleen hutsegiteen kontrola eraman behar dute, ikasleak konektatuta egon behar diren kasuetan. Konektatzea eskatzen ez zaien kasuetan lanean ari direla kontrolatzeko, egindako lana hartuko da kontuan (ezin besterik egin).

Kasu batean zein bestean (hutsegiteen kasuan ari gara), ikasleari ordu horretan egin behar zukeen lana ordezkatzeko duen lan bat eskatzeko zaio. Lan hori zama baten moduan ikusten badu, borondatezko deskonexioa garesti irteten zaiola ikusi (borondatezkoa izan den kasuan), eta agian hurrengoan konektatzeko pizgarri bat izan daiteke.

Esan bezala, guzti hau programazioan jaso behar da.

c) TALDE LANAK.

Ikasle batzuk ez dute beste ikasle edota lagunekin ere, inongo harremanik izan martxotik ekaina bitarte. Ondo legoke noizean behin bada ere, irakasleek erabakitako taldeen bitartez, talde-lanak bidaltzea. Taldeak beraien kasa egiten utziz gero, lotsatienak bakarrik geratzen jarraituko dute. Behartu ditzagun elkar-erlazionatzea, bultzatu ditzagun modu positibo batean horretara, taldeko lan polit batzuk bidaltzen.

d) EBALUAZIOAK

- 1.agertokian, ebaluazioa betiko moduan egingo da.
- 2.agertokian, ikasleak txandaka etorriko lirateke eskolara, ratioa jaistearren, beraz, kontrol eta azterketak ikastetxean egin ahal izango lirateke, eta egingo lirateke, nahiz eta bi txandetan izan: batzuek goizez egingo lituzkete azterketak eta beste batzuek arratsaldez.
- 3.agertokian berriz, egoeraren arabera erabaki beharko da. Azterketak ikastetxean egitea lehenesten da, baina momentuko egoera eta araudiari erreparatu beharko zaio.

ZUZENDARITZA